

13/03/2009

Ezkio-Itsaso.- “Bihar Igartubeitira joanez gero familia guztiek mozorrotzeko aukera izango dute bertan”

Saskigintza, abarkak, komikiak... Orain arte tailer desberdinak egin dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan, baina beste asko etorriko dira hemendik aurrera, hurrengoa familientzat zuzendutako mozorroen tailer didaktikoa izango delarik.

Besteetan bezala larunbatean ospatuko da mozorroen tailerra, bihar konkretuki, eta arratsaldean zehar hau lantzeko aukera egongo da Igartubeitiko interpretazio zentruan.

Tailer batzuk besteak baino arrakasta gehiago izaten dute, adibidez saskiak eta abarkak egin zirenean ume eta familia ugari baserrira hurbildu zirelarik. Oraingo tailer honekin jende asko animatzea ere espero dute Igartubeitikoek.

Museoak antolatzen dituen ekintzen artean familientzako tailer didaktikoak ditugu, eta hauetan leku guztietako gazte eta familiekin parte hartu dezakete. Baserriaren munduaren inguruan kokatzen dira beti gaiak, eta jolastuz edo eskulan desberdinak eginez, gure arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko aukera zabaltzen zitekeen gazte eta helduei.

Beraz, bihar arratsaldeko 4retan hasiko da mozorroen tailerra eta bertan parte hartu nahi duten guztiek aldez aurretik izena eman beharko dute, bai Igartubeiti baserri museoan bertan; baita 943 72 29 78 telefonoan; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoko web orrian.